

<b>2017KO AZAROAREN 29AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.</b>  =====	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 29 DE NOVIEMBRE DE 2017.</b>  =====
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>ALKATEORDEAK</u></b>	<b><u>TENIENTES DE ALCALDE</u></b>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)  
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)  
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)  
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

<b><u>ZINEGOTZIAK</u></b>	<b><u>CONCEJALES</u></b>
---------------------------	--------------------------

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)  
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)  
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)  
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)  
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)  
Iñaki Gamero Delgado (PP)  
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)  
Raquel González Díez-Andino (PP)  
Miguel Ibabe Botella (PP)  
Susana De Cos Yañez (PP)  
Paula Amieva Clemente (GUK)  
Susana Andollo González (GUK)  
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)  
Enrique Olaso García (GUK)

Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)  
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)  
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)  
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)  
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))  
Santiago Sainz Robles (C'S)

<b>IDAZKARI NAGUSIA</b>	<b>SECRETARIO GENERAL</b>
-------------------------	---------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

**189.- GETXOKO UDALBALTZAK 2017KO URRIAREN 25EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

2017ko urriaren 25ean Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

**ALKATETZA**

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**189.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE OCTUBRE DE 2017.**

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 25 de octubre de 2017

**ALCALDÍA**

**190.- BOZERAMAILEEN  
BATZORDEAREN AKORDIOAREN  
BERRI EMATEA: UDAL  
ERAKUNDEAREN AZAROAREN  
25EKO ADIERAZPENA.-  
EMAKUMEENGANAKO  
INDARKERIAREN AURKAKO  
NAZIOARTEKO EGUNA.**

Adierazpena irakurri da eta Paula Amievak hitza hartu du, azaroaren 25a egunen batean aldarrikatu beharko ez den eguna dela adierazteko. Ez da nahikoa urtean behin erreklamatzeko. Hori dela eta, udalak jarraitu behar du jendea kontzientziazatzen eta informatzen gizartean indarkeria matxista gelditzeko, denon artean soilik lor daiteke eta. Aintzakotzat hartu behar da egindako lan handia, baita adierazpenaren edukia ere, baina Eudelek proposatzen duena jarraitu beharreko gomendioa da eta ez dago itxita. Horregatik proposatu zituzten aldaketa batzuk, eta horiek onartu ez zirenez, abstenitu egin ziren Bozeramaileen Batzordean. Getxori lotutako neurriak zehaztu behar direla uste du. Kolektibo feministek Eusko Jaurlaritzaren diskurtso hutsa eta berdintasunera bideratutako baliabideen eskasia kritikatu egin dituztela esan du. Ezinbestekoa da erakundeek egiten dituzten aldarrikapenak eta adierazpenak emakumei zuzendutako benetako politika bihurtzea.

Nerea Guijarrubiak esan du EH Bilduk adierazpena babestu zuela, bere ustez egokia delako, baina, aurreko batzuetan esan bezala, paper-orrian edozein gauza jar daiteke. Hortaz, berdintasuna lortzeko eta indarkeria matxista errotik ateratzeko bidean aurrera egiteko, konpromiso zehatzak hartzea planteatzen dute, eta horretarako, baliabideak behar dira. Parte hartzeko prozesu bat eskatzen dute, dauden protokoloak berregiteko. Halaber, Emakumearen Etxea sortzea bezalako

**190.- DACION DE CUENTA DEL  
ACUERDO DE JUNTA DE  
PORTAVOCES SOBRE LA  
DECLARACIÓN INSTITUCIONAL  
DEL 25N: "DÍA INTERNACIONAL  
CONTRA LA VIOLENCIA HACIA  
LAS MUJERES".**

Tras darse lectura a la declaración interviene Paula Amieva que manifiesta que el 25 de noviembre es una fecha que espera que algún día no haya que reivindicar. No basta con reclamar un día al año y por eso hay que seguir desde el ayuntamiento concienciando e informando para parar la violencia machista en la sociedad, que sólo se puede hacer entre todas y todos. Hay que reconocer el gran trabajo realizado y el contenido también de la declaración pero el trabajo que se trae desde Eudel es una recomendación a seguir que no está cerrada y por eso plantearon modificaciones y como no se admitieron se abstuvieron en la Junta de Portavoces. Cree que hay que concretar medidas referentes a Getxo. Indica que los colectivos feministas han criticado el discurso vacío del Gobierno Vasco y los escasos recursos destinados a la igualdad. Las proclamas de las declaraciones institucionales deben convertirse en políticas reales y dirigidas a las mujeres.

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu apoyó la declaración porque le parece adecuada pero, como otras veces han dicho, el papel aguanta todo y plantean que se asuman compromisos concretos para avanzar en la igualdad y en la erradicación de la violencia machista y para ello hacen falta medios. Piden un proceso participativo para reelaborar los protocolos actuales y que se adopten medidas como la creación de la Casa de la Mujer y eso sólo es posible

neurriak hartzeko eskatzen dute, eta hori, emakumeen elkarteak eta gizarte-mugimenduak indartu gabe, ez da posible izango. Udal politiketan sakondu behar da.

Santiago Sainzek esan du harro dagoela adierazpen hori Udaleko osoko bilkurara ekarri delako. Izan ere, orain dela 36 urte imajinaezina izango litzateke, indarkeria matxista betidanik baitago gizartean. Oraindik lan handia egin behar da, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen %80k bere ingurutik-at daude eta 2017. urtean erahiltako emakumeen %20k bakarrik jarri zuten salaketa. Emakume etorkina victimen %33 suposatzen du, bazterkeria egoeran daudenen artean eta 65 urtetik gorakoan artean gertatzen da, hortaz, kolektibo horiek behar dituzte berariazko neurri zehatzak. Ondoren, berak proposatuko lituzkeen neurri batzuk azaltzeari ekin dio. Bere iritziz, gizonezkoen parte hartzea ezinbestekoa da; genero-indarkeriarekin lotutako ingurunean jardun behar da, gizonen artean. Gogorarazi du genero-indarkeriaren kontrako estatu ituna Ciudadanosen eskakizuna izan dela, talde guztiek onartu egin dutena; demokraziaren garaipena izan dela esan daiteke. Itunaren aldeak azaldu ditu, baita horretan jasotako 213 neurrietako batzuk ere. Beharrezkotzat jo du ituna betetzen ote den ikuskatzea, eta horretarako, jarraipen batzordea sortu dute.

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordearen akordioaren berri jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen

con el fortalecimiento de las asociaciones de mujeres y los movimientos sociales. Hay que profundizar en las políticas municipales.

Santiago Sainz dice que está orgulloso de traer esta declaración al Pleno que es una declaración que hace 36 años sería inimaginable pese a que la violencia machista está desde siempre en la sociedad. Queda mucho por recorrer ya que el 80% de las mujeres maltratadas están aisladas de su entorno y sólo un 20% de las asesinadas en el 2017, habían presentado denuncias contra su agresor, sufriendo una "violencia silenciada". La mujer migrante supone el 33% de las víctimas, en aquellas que están en situación de marginalidad y en las mayores de 65 años y esos colectivos requieren de medidas específicas y concretas, pasando a detallar algunas de las que propondría. Entiende necesario implicar a la población masculina, hay que actuar en el entorno masculino de la violencia de género. Recuerda que el pacto del Estado sobre la violencia de género fue una exigencia de Ciudadanos que ha sido asumida por todos los grupos, lo que supone una victoria de la democracia. Detalla aspectos del pacto y de alguna de sus 213 medidas. Cree necesario fiscalizar su cumplimiento y para ello han creado una comisión de seguimiento.

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces,

Con motivo del 25 de Noviembre, Día

aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeo dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da erreparazio-eskubidea emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.

Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek

Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, reiteramos el carácter estructural de este tipo de violencia y manifestamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Asimismo, en línea con el marco jurídico internacional, reafirmamos el vínculo existente entre la discriminación por motivos de género y la violencia contra las mujeres. Además de asegurar los servicios de asistencia a las víctimas y supervivientes de violencia contra las mujeres, es necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: Prevención, Detección, Atención, Protección, Coordinación, Justicia, y también Reparación.

En el marco de nuestro compromiso institucional con la construcción de una sociedad igualitaria libre de violencia contra las mujeres, debemos asumir el reto de incorporar el derecho a la reparación de las víctimas en la respuesta ante la violencia contra las mujeres. Para ello se hace necesario contar con los medios y recursos que permitan visibilizar todos los impactos de la violencia y todas sus expresiones contribuyendo a su deslegitimación social. Es necesario dar voz y protagonismo, tanto a las mujeres víctimas de violencia machista como a las asociaciones en las que se agrupan, reconociendo su legitimidad para proponer vías para la reparación.

Esta reparación debe tener como objetivo la completa recuperación de las víctimas y supervivientes de la violencia contra las mujeres. Debe incluir, por lo tanto, la mejora de todos los servicios y sistemas implicados a

guztiak sistematikoki aztertuz.

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa agenda politikoan indarkeriak eragindako emakume biktimekiko, baita bere seme-alabekiko ere, erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezten eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.

- Gure konpromisoa udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko edo, hala badagokio, abian jartzeko, indarkeria matxistari aurre egitea xede, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin batera, bai halaber gizarte zibilarekin eta herritarrekin oro har.

- Gure konpromisoa gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezten.

- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak eskura izan daitezten, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.

través de su evaluación sistemática.

Por tanto, en este marco del Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres manifestamos:

- Nuestro compromiso con incorporar en la agenda política la reflexión y el reconocimiento del derecho a la reparación de las mujeres víctimas de violencia, así como de sus hijos e hijas, para su completa recuperación y que puedan ejercer su derecho a una vida libre de violencia.

- Nuestro compromiso con continuar el despliegue y mejora o, en su caso, la puesta en marcha en los municipios de planes y medidas estructurales para hacer frente a la violencia machista, en colaboración con colectivos de mujeres y feministas así como con la sociedad civil y ciudadanía en su conjunto.

- Nuestro compromiso con el impulso de un cambio estructural en la sociedad, que implique a instituciones públicas, medios de comunicación, agentes del ámbito laboral, cultural, social y económico, así como de toda la sociedad en su conjunto.

- Y nuestra responsabilidad, a través de los acuerdos con todas las fuerzas políticas e instituciones, para que se disponga de los recursos necesarios para avanzar hacia la eliminación de la violencia contra las mujeres en nuestra sociedad.

OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,  
GAZTERIA ETA EUSKARA

HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS,  
EDUCACIÓN, JUVENTUD Y  
EUSKERA

**191.- 3. HIRUHILEKOKO  
AURREKONTUAREN  
BURUTZAPENAREN BERRI  
EMATEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andradek hartu du hitza, aurrekontuaren burutzapenak 2017ko hirugarren hiruhilekoan zerga-bilketan izandako "katastrazo" delakoaren ondorioak pairatzen dituela adierazteko, ondasun higiezin gaineko zergak % 4ko igoera izan duelako. Hala ere, gastuen % 75 inguruk gauzatuta egon beharko lukeen arren, batez beste, % 40 soilik gauzatu da; Kultura Sailak bakarrik gastuen % 70 baino gehiago gauzatu du, baina beste sail batzuek, Hirigintzak adibidez, aurrekontuaren % 14 baino ez dute gauzatu, kudeaketan arduragabekeriaren seinale. Inbertsioei dagokienez, aurrekontuan jasotakoaren % 10,19 bakarrik gauzatu dela esan du. Horrek esan nahi du ezer gutxi edo ezer ez dela egiten, eta hori kezagarria da. Gauza bera gertatzen da Gizarte Zerbitzuen arloan, baita Sustapen Ekonomikoaren arloan ere, oso gutxi gastatu dutelako.

Inazio Uriartek erantzun du emaitzak desberdinak izaten direla, aztertzen ari den burutzapen-fasearen arabera. Aurrekontua burutzeari dagokionez, % 68ko maila lortu da eta, inbertsioak alde batera utzita, baimendutako gastuen % 70 baino gehiago gauzatu da. Gastu gehienak azken hiruhilekoan egiten dira. Beste aurrekontu-fase batzuei erreparatuta, kopuruak txikiagoak dira. Urtearen amaieran % 90etik gorako burutzapena espero du eta gogorarazi du inbertsio guztiak urtebetekoak ez direnez, aldeak sortzen dira aurrekontua burutzeko orduan. Aurrekontua burutzea atzeratuta egon daiteke, bai, baina ezin da esan gauzatzen ez denik. Baimendu ondorengo faseetako gastua aztertzeari dagokionez, esan du Udaleko osoko bilkurak ere

**191.- DACIÓN DE CUENTA DE  
EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 3º  
TRIMESTRE 2017.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que manifiesta que la ejecución del presupuesto en el tercer trimestre de 2017 recoge los efectos del "catastrazo" en la recaudación ya que el IBI se ha incrementado en un 4%. Sin embargo los gastos que debían estar ejecutados entorno a un 75% se han ejecutado en una media del 40%, sólo el departamento de Cultura supera el 70%, pero otros departamentos como Urbanismo se queda en un 14% de lo presupuestado, lo que evidencia la dejadez en la gestión. Indica que de las inversiones solo se ha ejecutado el 10,19% de lo presupuestado. Esto indica que poco o nada se hace, lo que es preocupante y lo mismo sucede en el ámbito de los Servicios Sociales y también en el área de promoción económica que el gasto ejecutado es escaso.

Inazio Uriarte contesta que según qué fase de ejecución se mire los resultados son diferentes. La ejecución del presupuesto es de un 68% y sin inversiones supera el 70% de los gastos autorizados y generalmente el último trimestre es en el que más se ejecuta. Si se fija en otras fases presupuestarias las cifras bajan, espera una ejecución superior al 90% a fin de año y recuerda que todas las inversiones no son de periodo anual, por lo que suele existir un decalaje en la ejecución. Reconoce que puede haber retraso en la ejecución pero no existe inejecución. Respecto a examinar el gasto en fases posteriores a la de la autorización indica que el Pleno también tiene efectos en las otras fases porque determina con cuestiones como

badituela eragina beste fase horietan, aurrekontuak onartzeko eguna bezalako kontuak ebazten dituelako, eta bai gobernu taldea, bai oposizioa dela horren erantzule.

Ibon Rodríguezek adierazi du EH Bilduk ez zuela esku hartzeko asmorik, baina, Ogasunaren arloko zinegotziaren propaganda ikusita, esan beharra dagoela aurrekontua epean onartzeko, lehendabizi, dagokion epean aurkeztu behar dela. Alabaina, 2018ko aurrekontuak pasa den astean aurkeztu dira eta Udaleko osoko bilkuran eztabaidatu edo ez zain daude; izan ere, baliteke 2017ko aurrekontuekin bezala gertatzea, horiek azkenean ez baitziren Udaleko osoko bilkuran eztabaidatu, gobernu taldeak PPrekin akordio ilun bat lortu zuelako.

Eduardo Andradek berretsi egin du aurrekontuak pasa den astean aurkeztu zirela. Esan du, gainera, aurrekontuak burutzean logikoa dela onetsitako betebeharrak konparatzea. Urtearen amaieran 50 milioi sobera geratuko dela uste du. Benetako datuak aurreko esku-hartzean eman ditu, eta horien arabera, gastua egiteko batezbestekoa % 40koa da.

Santiago Sainzek adierazi du 2017ko aurrekontua ez zela onartu, inork ez zuelako nahi aurrekontua EAJ-PNVrekin adostu. 2016an, aldiz, EH Bilduren abstentzioa -baina ez babesa- izan zen lortu zuten gauza bakarra. PPK diru-izendapen gehigarrien bidetik jotzea erabaki du, eta horrek erakusten du EAJ-PNVrekin zerbait gertatzen dela, inork ez baitu nahi aurrekontua berarekin adostu. Zerga-bilketari dagokionez, iaz baino gutxiago bildu da eta alde handia dago aurreikusitakoaren eta bildutakoaren artean, zeharkako zergak, tasak eta beste diru-sarrera batzuk aztertzen direnean. Hori dela eta,

las fechas de aprobación de los presupuestos, acuerdo en el que tienen tanto responsabilidad el equipo de gobierno como la oposición.

Ibon Rodríguez manifiesta que desde EH Bildu no iban a intervenir pero ante la propaganda manifestada por el concejal de Hacienda indica que para aprobar en tiempo el presupuesto primero hay que presentarlo en tiempo y los presupuestos para el 2018 se han presentado la semana pasada y están a la espera de si van a llegar a debatirse en el Pleno o va a ocurrir como en los presupuestos del año 2017 que no llegaron a debatirse en el Pleno porque el equipo de gobierno llegó a un oscuro acuerdo con el PP.

Eduardo Andrade ratifica que los presupuestos se presentaron la semana pasada y lo lógico, además, en la ejecución presupuestaria es comparar las obligaciones reconocidas y estima que a fin de año sobrarán 50 millones. Los datos reales son los que ha indicado en su intervención anterior y que arrojan una media de ejecución del gasto del 40%.

Santiago Sainz manifiesta que el presupuesto del 2017 no se aprobó porque ningún grupo quiso pactar el presupuesto con el PNV y el 2016 lo único que consiguieron fue la abstención de EH Bildu pero no el apoyo y el PP ha optado por la vía de créditos adicionales, lo que evidencia que algo le pasa al PNV que nadie quiere pactar el presupuesto con ellos. La recaudación ha bajado con respecto al año pasado y hay una gran diferencia entre lo previsto y recaudado en impuestos indirectos y en tasas y otros ingresos, por lo que pide aclaraciones. Estima la que ejecución presupuestaria



azalpenak eskatu ditu. Berak kalkulatu duenez, aurrekontuaren burutzapena % 40,17koa dela esan du eta betetze maila baxua duten hainbat idazpenen xehetasunak azaldu ditu. Herritarrak zergekin ez itozteko eta aurrekontua gastatzeko eskatu du, batez ere, gizarte arloari dagozkion idazpenetakoa.

Inazio Uriartek erantzun du dagoeneko hitz egin duela gastuei buruz, eta antzeko zerbait gertatzen dela diru-sarrerei dagokienez; izan ere, irailaren 30era arte kontabilizatu direnak daude jasota. Azaldu duenez, aurten ondasun higiezinaren gaineko zerga eguneratu eta programa informatiko berriak erabiltzen hasi dira, eta ondorioz, zerga-egutegia aldatu egin da. Horregatik gertatu da. Zeharkako zergei dagokienez, aldeak daude zerga-egitatearen eta dagokion kontabilizazioaren artean. Horiek urtearen amaieran doituko dira.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

2017eko 3. hiruhilekoari dagokion Aurrekonturen Exekuzio-egoerak jakintzat ematea, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko espedientean jakitun egon.

**192.- 4533/2017 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-

es del 40,17% y da detalles de diferentes partidas con un nivel de ejecución baja. Pide que no se ahogue a la ciudadanía con impuestos y que se gasten los presupuestos, sobre todo las partidas sociales.

Inazio Uriarte contesta que de los gastos ya ha hablado y respecto a los ingresos sucede algo similar porque son los que figuran los contabilizados a 30 de septiembre y que este año se ha debido a que se ha cambiado el calendario fiscal por razón de la actualización del IBI y las nuevas aplicaciones informáticas. Respecto a los impuestos indirectos, existen diferencias dentro de la realidad del hecho imponible y su contabilización, que se ajustarán para fin de año.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los Estados de Ejecución Presupuestaria correspondientes al 3º trimestre del ejercicio 2017 cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**192.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO N° 4533/2017 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente

aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

4533/2017 zenbakidun Dekretua  
114.970,00 euroko zenbatekoarekin.  
2017/17 kreditu-transferentzia.  
Barneko garbiketa zerbitzua luzatzea.

**193.- GEHIGARRIZKO KREDITUA  
EMATEA ONESTEA, BEHARREKO  
EKIPAMENDUA GETXO  
ANTZOKIARENTZAT  
EROSTEARREN.**

Proposamena irakurri ondoren, Joseba Arregik hartu du hitza, kreditua azken ekipamenduak eskuratzeko lizitazioa egiteko erabiliko dela adierazteko. Obrak uda amaieran bukatuko direla eta urte amaieran antzokia guztiz horniturik egongo dela espero du. Kostuaren balorazioa aurreikusitakoa da: 32,2 milioi euro obra burutzeko, azken fase horretarako 5,3 milioi euro, gehi bi milioi urbanizatzeko obrak egiteko; guztira, hasieran aurreikusitako 40 milioi izango dira. Gehitu beharra dago antzerki ekipamendua erosteko 6 milioi behar direla, eta beste 2,4 milioi, altzariak erosteko. Esan duenez, guztizko kostua aldera daiteke antzekoa den edozein jarduketaren kostuarekin.

Eduardo Andradek esan du egungo kostuek ez dutela zerikusirik aurreikusitakoekin. Hasierako proiektua 23 milioikoa zen, eta dagoeneko 52 milioi gastatu dira. Obrak lau urtean burutzeko asmoa zen, eta dagoeneko bederatzi urte igaro dira. Getxo Antzokia gaizki hasi zen eta gaizki amaituko da. Auzokoak proiektuaren aurka azaldu ziren. Zenbait fasetan egin denez, kostuak igo egin dira; izan ere, Getxo Antzokia ordaintzeko, maileguak eskatu, udal lurrak saldu, udalaren lurzoru-ondarearekin lortutako

decreto de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

Decreto nº 4533//2017 por un importe de 114.970,00 euros. Transferencia de crédito 2017/17. Ampliación del contrato de limpieza de interiores.

**193.- APROBACIÓN DE CRÉDITO  
ADICIONAL PARA LA  
ADQUISICIÓN DE EQUIPAMIENTO  
PARA EL GETXO ANTZOKIA.**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Joseba Arregi que indica que el crédito es para la licitación de los últimos equipamientos y espera que la obra esté finalizada para finales de verano y equipada para fin de año. La valoración del costo es la prevista, 32,2 millones de euros en la obra, esta última fase que ascenderá a 5,3 millones más los dos millones de la urbanización, resultan los 40 millones estimados previamente. Hay que añadir que faltan 6 millones para el equipamiento escénico y 2,4 millones para el mobiliario. Manifiesta que el total del costo es absolutamente homologable con cualquier actuación similar.

Eduardo Andrade indica que los costos actuales no tienen nada que ver con los costos previstos. El proyecto inicial fue de 23 millones y ya se han gastado 52 millones. Se indicó que la obra se iba a realizar en cuatro años y se lleva ya nueve años de ejecución de obra. El Getxo Antzokia surgió mal y acabará mal. El proyecto contó con la oposición de los vecinos. Se ha hecho en fases, lo que ha encarecido los costes, para pagar el Getxo Antzokia se han pedido préstamos, se han vendido terrenos

dirua gastatu egin da, eta hala ere, diru gehiago eske etorri da Udaleko osoko bilkurara. Getxo Antzokian dagoeneko gauzatu den lana zaharkitzen ari da eta zati batzuk berrikusi behar dira. Ez dago bideragarritasun-planik eta ez dira zehaztu mantentze-lanak egiteko gastuak, milioi bat euro baino gehiago aipatu den arren. Azpiegitura horrek, gainera, ez du balio Jazz eta Blues jaialdiak antolatzeke, hortaz, jarraitu beharko da karpak jartzen. Urbanizazioa ez da proiektuan adierazi bezala geratu: San Nikolas plazako zoruak altuera desberdinak ditu, ez dago kioskorik eta abar. PPK eskatuta, lurpeko aparkalekua egin da, baina ez du balio zerbitzua emateko, diseinua dela eta ezin duelako; ondorioz, praktikan, Getxo Antzokiaren langileek bakarrik erabiltzen dute. Musika Eskolari dagokionez, ez da espero zen emaitzarik egon, eskaintza zabaldu ez delako. Bere ustez, obrak bukatzen direnean, kontu-ikuskapena eskatu beharko da aurreikusitako kostuen eta egindakoen arteko aldea aztertzeke, horien legezketasuna zalantzan jartzen ez badu ere. Bada garaia auzokoei Getxo Antzokiaz gozatzeko aukera emateko, hori dela eta, abstenitu egingo dira, Getxo Antzokia amaitzeko azken gastu hori (azkena izango dela esperoan) ahalbidetzeko eta auzokoei zerbitzua emateko.

Enrique Pradak adierazi du ez duela uste Getxo Antzokia eta haren kudeaketa harro egoteko modukoak direnik. Ez ditu zentzugabekeriatzat eta diru-eralgiketatzat jotzen dituen zenbatekoak errepikatuko. GUK taldeak antzoki bat nahi du getxotarrentzat, baina ez antzoki hori eta kostu horrekin, eta hori, eraikuntza kostuek behera egin dutela

municipales, se ha gastado dinero del patrimonio municipal del suelo y cuando aún así y todo no llega se viene al Pleno para pedir más dinero. La obra ejecutada ya del Getxo Antzokia está quedando vieja y hace falta en algunos aspectos repasar parte de la misma. No hay plan de viabilidad ni están definidos los gastos de mantenimiento aunque se ha hablado de una cifra que supera el millón de euros. Además esta infraestructura no sirve ni para los festivales de Jazz ni los Blues y por tanto habrá que seguir montando las carpas. La urbanización no ha quedado como se indicó ya que siguen existiendo diferentes niveles en la Plaza de San Nikolas, no hay kiosko, etc. Se ha hecho un aparcamiento subterráneo a petición del PP pero que no sirve para dar servicio ya que por su diseño no puede y se reserva prácticamente para el personal del Getxo Antzokia. La Escuela de Música tampoco ha dado el resultado esperado ya que no se ha ampliado la oferta. Cree que cuando terminen las obras es necesario pedir una auditoría para que analice el desfase de costos aunque no dude de la legalidad de los gastos realizados. Cree que es hora que los vecinos puedan disfrutar del Getxo Antzokia, y por esto se van a abstener, para posibilitar lo que esperan que sea el último gasto que se haga en el Getxo Antzokia para finalizar el mismo y dar servicio a los vecinos.

Enrique Prada manifiesta que no cree que el Getxo Antzokia y su gestión sea para estar orgullosos. No va a repetir las cifras que califica de desvarío y derroche. GUK quiere un teatro para Getxo pero no ese teatro y con ese coste y eso que los costes de construcción están a la baja. Cree que es una irresponsabilidad de gestión de

kontuan hartuta. Baliabide publikoak arduragabetasunez kudeatzea dela uste du. Gogoan ditu arkitektoak 2010ean esandakoa: azken minutura arte aldaketak egongo direla proiektuan; izan ere, dirujario bihurtu da. Denek obra amaitzea nahi dute, baina kudeaketa kritikagarria baino kritikagarriagoa da. Bere garaian, kontrol batzorde bat eratzea proposatu zuten, baina ez zen Udaleko osoko bilkuran onartu; hala ere, azalpenak eman behar direla uste du. Adibidez, plazako bankuek hiru milioi pezeta balio izan dute, eta hori diru publikoa xahutzea da. Bere ustez, ez dago udalkiderik, ez gobernu taldean, ez oposizioan, bere ondare pribatua Getxo Antzokiarena bezala kudeatuko duenik.

Joseba Arregik esan du GUK taldeak esku hartu duten teknikarien profesionaltasuna kritikatu baino ez duela egin, baina ez du kritika politikorik egin. Eduardo Andraderi erantzun dio harro daudela plaza jarduera sozial eta ekonomikoz bete dela ikusten dutenean. Musika Eskolaren eskaintza zabaldu egin da, matrikulen kopurua ikusi besterik ez da behar. Desbiderapenari dagokionez, gogorarazi dio BEZ igoera egon dela eta Kontsumoko Prezioen Indizea ere aldatu egin dela; gainera, segurtasunaren inguruko araudian izandako aldaketen ondorioz ere garestitu da proiektua. Dagoeneko 2013. urtean aipatu zen 40 milioi euroko zenbatekoa, eta denbora osoan gardentasunez jokatu da. Getxo Antzokia eraikitzeak getxotarrek dituzten eta adierazi dituzten beharrei erantzuten die. Eraikitzea posible izan da, udalaren zorra murriztea lortu delako (2010ean 36 milioi euro izatetik 2017an 15 milioi izatera), 51 milioi euroko inbertsioa izan arren.

recursos públicos. Recuerda unas declaraciones del arquitecto del año 2010, cuando dijo que el proyecto sufriría cambios hasta el último minuto y se ha convertido en un pozo sin fondo. Todos desean que finalice la obra pero la gestión es de lo más criticable. Presentaron en su día la propuesta de una comisión de control pero no prosperó en el Pleno, aún así estima que se deben dar explicaciones. Indica, como ejemplo, que los bancos de la plaza han costado más de tres millones de las antiguas pesetas, lo que es un ejemplo de derroche público. No cree que ningún corporativo, ni del equipo de gobierno ni de la oposición, actúe con su patrimonio privado como se ha actuado con el Getxo Antzokia.

Joseba Arregi indica que GUK lo único que ha hecho es criticar la profesionalidad de los técnicos que han intervenido y ningún tipo de crítica política. A Eduardo Andrade le indica que están orgullosos de ver la actual plaza llena de actividad social y económica. La oferta de la Musika Eskola se ha ampliado y sólo hay que ver el número de matrículas. Respecto a la desviación le recuerda que ha existido una subida del IVA y también la evolución del IPC, así como cambios de normativa de Seguridad, etc., que han encarecido el proyecto. El año 2013 ya se habló de una cifra de 40 millones y en todo caso se ha sido transparente y la construcción del Getxo Antzokia responde a unas necesidades conocidas y reconocidas por la vecindad de Getxo y se ha podido construir reduciendo el endeudamiento que tenía el ayuntamiento de 36 millones el año 2010 a 15 millones el año 2017, pese a que ha supuesto una inversión de 51 millones de euros.

Nerea Guijarrubiak adierazi du 52 milioi euro direla, eta 9 urte antzokirik gabe. EAJ-PNVk esan du bere egitismo politikoa betetzen ari dela, baina inon ez da agertu obra egiteko 9 urte behar izango dituela eta 52 milioi gastatuko dituela. Kudeaketa horrek ez du aitzakiarik, eta kudeaketa onaren adibidea dela uste badute, txarra nolakoa izango den galdetu behar da. Proiektuaren kudeaketa penagarria kritikatu du eta erantzule bakarra gobernu taldea dela esan du. Diru-izendapen gehigarria ezartzeko laguntza behar dute orain, eta PPren babesa lortu dute; izan ere, harritzekoa da PPk kasu honetan azaldu duen eskizofrenia politikoa: batetik, proiektua eta horren kudeaketa kritikatzeko, baina bestetik, abstentzioaren bidez, diru gehiago jartzea ahalbidetzen dute.

Eduardo Andradek adierazi du hasieratik parte hartu dutela Getxo Antzokia proiektuaren jarraipenean eta egiaztatuta dagoela arkitektoa proiektua egin ahala inprobisatzen zegoela; ondorioz, hasierako 23 milioiko aurrekontua 52 milioiko gastu bihurtu da. Proiektua aurreikusitako lau urteetan burutu balitz, aipatu gorabehera ekonomikoek (BEZaren igoerak, KPIren aldaketek eta abar) ez lukete eraginik izango. Abstenitu egingo dira, Getxo Antzokiaren proiektua amaitzea ahalbidetzeko, herritarrek azpiegitura erabiltzen hasi nahi dutelako, baina horrek ez du esan nahi kontu-ikuskapena planteatuko ez dutenik. Gogorarazi dio EH Bilduri proiektua hastear zegoenean, lanak geldiarazteko aukera izan zuela, baliabide ekonomikorik ez zegoelako; hala ere, proiektuaren alde egin zuten.

Enrique Pradak adierazi du harrিতuta geratu dela Joseba Arregik esandakoarekin, GUKek ez duela kritika politikorik egin. Adierazpen horrek,

Nerea Guijarrubia manifiesta que son 52 millones de euros y 9 años Getxo sin su antzoki. El PNV dice que cumple su programa electoral pero en ningún programa aparecía que tardaría 9 años en hacer la obra y gastaría 52 millones. No hay excusas para esta gestión y si les parece que es un buen ejemplo se preguntan cuál será una mala gestión. Critica la pésima gestión del proyecto del que el único responsable es el equipo de gobierno. Ahora necesitan ayuda para el crédito adicional y han conseguido el apoyo del PP y están asombrados por la esquizofrenia política del PP en este caso, ya que critica el proyecto y la gestión del mismo pero apoyan que se aporte más dinero con su abstención.

Eduardo Andrade manifiesta que han estado en el seguimiento del Getxo Antzokia desde el principio y está acreditado que el arquitecto ha ido improvisando sobre la marcha y así de 23 millones de presupuesto inicial se ha pasado a 52 millones. Reconoce que si se hubiera realizado el proyecto en los cuatro años previstos las incidencias económicas como el IVA, el IPC, etc., no se hubieran producido. Con su abstención van a posibilitar que se finalice el Getxo Antzokia ya que los ciudadanos quieren utilizar esa infraestructura pero ello no significa que renunciebn a plantear una auditoría. Recuerda a EH Bildu que tuvo la oportunidad de pararlo al principio de la ejecución cuando no había recursos económicos pero apoyaron su construcción.

Enrique Prada manifiesta su perplejidad en relación a lo indicado por Joseba Arregi de que GUK no había hecho ninguna crítica política. Esa

dirudienez, esan nahi du gobernu taldea ez dela arduratzen obran dirua xahutzeaz, ezta kontrolik ezaz ere. Gobernu taldeak gauza batzuk oso ondo egiten ditu eta beste batzuk ondo; baina gaizki eta oso gaizki egin dituen gauza batzuk ere badaude, eta Getxo Antzokiaren kudeaketa oso gaizki egindako gauza bat da. Zorraren kudeaketaz harro daude, baina hori ere ez da benetako kontu bat, Getxo Antzokia finantzatzeko Udal Lurzoru Ondarea erabili dutelako. Gobernu taldeak erantzukizuna saihestea zentzugabekeria dela uste du. Obraren kostuen igoerari buruzko azalpenak eskatu ditu. Botoei buruzko argudioari dagokionez, adierazi du EAJ-PNVren aldeko botoa eman duten asko ez daudela ados Getxo Antzokiaren proiektuarekin, ezta Nagusien Etxea tokiz aldatzearekin; hala ere, jarraitzen dute alderdi horri botoa ematen.

Joseba Arregik erantzun dio oraindik itxaroten ari dela GUKek noiz aipatuko gobernu taldeak ondo egin duen zerbait, bere politika osoa deskalifikatu besterik egiten ez duelako. Buruz ari dira, baina gobernu taldeak zenbakiak eman ditu eta aurreko osoko bilkuretan adierazitakoari lotzen zaizkio. Esan du ez dela inprobisatu. Izan ere, arkitektoak talde politikoek aurkeztutako mozioen ondoriozko eskaerak eta auzotarren eskabideak ere hartu ditu kontuan, eta horrek kostuak igotzea ekarri du. Gogorarazi du Getxo Antzokiaren proiektua dagoeneko zortzi aldiz agertu dela Udaleko osoko bilkuran. Gobernu taldeak kudeaketa ona egin du kultura-eta gizarte-egiturak sortzeko orduan eta zorra gutxitzea lortu du, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak murriztu gabe.

Eduardo Andradek esan du Getxo Antzokia ez datorrela bat auzokoek nahi

manifestación parece significar que el equipo de gobierno no se hace responsable del derroche de la obra ni de su falta de control. El equipo de gobierno hace cosas muy bien, otras bien, otras mal y otras muy mal y la gestión del Getxo Antzokia es muy mala. Se ponen la medalla de la gestión del endeudamiento pero tampoco es una cuestión real ya que lo que han hecho es utilizar el PMS para financiar el Getxo Antzokia. Cree que eludir las reponsabilidades del equipo de gobierno es un disparate. Pide explicaciones del incremento de los costes de la obra. Respecto al argumento de los votos manifiesta que hay mucho votante del PNV que no está de acuerdo ni con el Getxo Antzokia ni con el traslado de la Nagusien Etxea pero pese a ello le siguen votando.

Joseba Arregi replica que sigue esperando que GUK diga algo que ha hecho bien el equipo de gobierno ya que toda su política es la de la descalificación. Hablan de oído pero el equipo de gobierno da las cifras y se remite a lo manifestado en plenos anteriores. Niega la improvisación ya que el arquitecto ha respondido también a peticiones derivadas de mociones de grupos políticos y de peticiones vecinales que han supuesto incremento de costes. Recuerda que el proyecto del Getxo Antzokia ha pasado ya ocho veces por el Pleno. El equipo de gobierno ha gestionado bien la creación de equipamientos culturales y sociales a la vez que ha reducido el endeudamiento y todo ello sin rebajar los servicios que se vienen prestando a la ciudadanía.

Eduardo Andrade indica que el Getxo Antzokia no se ajusta a lo que querían

izan dutenarekin, etxebizitzetatik urrunago egotea eta baxuagoa izatea nahi izan dutelako. PPK aparkalekua eskatu zuen, horrelako azpiegitura batek aparkalekurik ez izatea barregarria iruditu zitzaiolako. 4 milioiko inbertsioa izan arren, ez da ondo egin eta itxita dago jendearentzat. 95 plaza ditu aparkalekuak. Gastuak kontu-ikuskapenaren bidez argitzea espero dute. Bukatzeko, proiektua amaitzea eta abian jartzea nahi duela esan du.

Nerea Gujarrubiak adierazi du, gobernu taldeak egin duena kudeaketa ontzat jo duen arren, amaierako kostua ikusita, nekez azalduko zaiela getxotarrei Getxo Antzokia kudeaketa onaren adibidea dela.

Enrique Pradak esan du ez dagoela aitzakiarik horrelako kudeaketa egiteko, eta gobernu taldeak erantzukizuna bere gain hartu behar duela. Proiektua garatu bitartean izandako igoera ekonomikoak aipatu ditu eta GUKek adierazitako kritikak zuzenak eta bidezkoak direla esan du. Halaber, gobernu taldea kritikatu du, etxebizitza eskuratzea arazoa zela eta gazteak udalerritik joaten zirela ohartarazi zuenean, Udal Lurzoru Ondaretik eskuratutako lau milioi euro Getxo Antzokia finantzatzeko erabili zuelako.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 11 boto, EAJ-PNV, PSE-EErenak; kontrako 8 boto, GUK eta EH Bildurenak; 6 abstentzio, PP eta Ciudadanosenak.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

los vecinos, ya que querían alejarlo más de las viviendas y rebajar más su altura. El PP pidió un parking porque le parecía ridículo que una infraestructura de ese tipo no tuviera un parking y su inversión supuso 4 millones y está mal construido y cerrado al público con 95 parcelas en su interior. Esperan que los gastos se aclaren con la auditoría. Finaliza indicando que quiere que se acabe y se use.

Nerea Gujarrubia manifiesta que pese a que el equipo de gobierno califique de buena gestión lo que han realizado va a costar explicar a los vecinos que el Getxo Antzokia, a la luz de los costes finales, sea un ejemplo de buena gestión.

Enrique Prada indica que no hay excusas en esta gestión y el equipo de gobierno debe asumir responsabilidades. Da cuenta de los diferentes incrementos económicos del proyecto, son críticas correctas y fundadas las que realiza GUK. Critica también que a la vez que el equipo de gobierno alertaba del problema de la vivienda y de la fuga de jóvenes del municipio, ese mismo año destinaba cuatro millones del PMS al Getxo Antzokia.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 8 votos en contra, GUK, EH Bildu; 6 abstenciones, PP, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Onestea, gehigarriko kreditua emateko espediente, zk. 2017/45 zenbatekoa 1.150.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2017/45 e Crédito Adicional, por importe de 1.150.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

### Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbatekoa Importe en €
004/9207/6270000	Proiektu konplexuak (Eraikinen kudeaketa) Proyectos complejos (Gestión de edificios)	1.150.000,00
Guztira Total		1.150.000,00

### Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako <u>gerakina</u> , gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	1.150.000,00
--	--------------

#### 194.- "EUSKARAK 365 EGUN" PROGRAMA BURUTZEKO KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA.

Proposamena irakurri ondoren, Koldo Iturbek adierazi du gizarte-eragileekin adostutako eta Eusko Jaurlaritzak eta Topagunek onetsitako proiektuaren baitan euskararen erabilera dinamizatzeko eskatzen dela kreditu gehigarria. Ez da kanpaina bat izango, ohitura batzuk bultzatzeko eta pertsonak euskara erabileraren inguruan dauzkaten jarrerak aldatzeko egitasmoa baizik. Euskara ulertzen duten baina hitz egiteko zailtasunak dituzten pertsonak edo euskara maila oso txikia dutenak izango dira hartzaileak. Trebetasunak garatzeko laguntza ematea eta euskarara hurbiltzea da helburua. 16 urtetik beherakoek har dezakete parte, baldin eta euskaraz apur bat badakite, baita honako hauek ere: kultur taldeek, kirol taldeek, gizarte-elkartek,

#### 194.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LLEVAR A CABO EL PROGRAMA "EUSKARAK 365 EGUN".

Tras dar lectura a la propuesta Koldo Iturbe manifiesta que el proyecto para el que se pide el crédito adicional es para dinamizar el uso del euskera en un proyecto consensuado con agentes sociales y aprobado por el Gobierno Vasco y Topagune. No se trata de una campaña sino de generar unos hábitos y cambiar las actitudes de las personas frente al uso del euskera. Los destinatarios son la gente que entiende el euskera pero que le cuesta expresarse o que tiene conocimientos muy reducidos del euskera. Se trata de apoyarles en sus capacidades y acercarles al euskera. Pueden participar los menores de 16 años que conozcan algo del idioma, grupos culturales, deportivos, sociales, profesionales, instituciones, grupos de euskera, etc. El objetivo es que para antes del día del euskera del año 2018 activar la mayor



profesionalen elkarteek, erakundeek, euskararen inguruan eratutako taldeek eta abar. Helburua zera da: 2018ko euskararen eguna iritsi arte, ahalik eta pertsona gehien aktibatzea euskaraz hitz egin dezaten. Horretarako, baliabide ekonomiko, sozial eta linguistikoak behar dira, eta horiek martxan jartzea lortu nahi da. Ondoren, egitasmoa burutzea ebaluatu egingo da. Ekimenak diru-hornidurak eskatzen ditu, baita diru-laguntzak emateko plan estrategikoa aldatzea ere, gizarte-eragileekin adosteko. Kontu horien guztien berri talde guztiei eman zaie, eta eskertzen du jasotako arreta. Taldeak proiektua hasteko ekitaldian parte hartzera gonbidatu ditu, datorren Euskararen Egunean, abenduak hiru, Areetan.

Oier Iturraldek adierazi du EH Bilduk proposamen hori -euskararen aldeko ekimen guztiak bezala- babesten duela, are gehiago, Bizarra Lepoan bezalako gizarte eragileekin adostasunez egiten badira. Zorionak eman dizkio gobernu taldeari bere jardueragatik eta poza adierazi du Eusko Jaurlaritzaren eta Topaguneraren artean lortutako akordioa dela eta. Oraindik lan handia egin behar dela uste du eta EH Bildu euskararen alde dagoela adierazi du.

Susana Andollok esan du (GUK taldearen izenean) ekimen polita dela, bere gisakoengana, hau da, euskara maila hobetu behar dutenengana, iristen delako. Urte osoko kanpaina izatea positiboa da bere ustez, euskaraz ondo ez jakin arren, hizkuntza horren aldeko jarrera duten guztiei zuzenduta dagoelako. Pertsona horiek, askotan, normalizazioaren aldeko apustua egin dute eta seme-alabek euskaraz ikasteko aukera eskaintzen duten irakaskuntzako hizkuntza-ereduetan

gente posible en el uso del euskera, para ello hacen falta recursos económicos, sociales y lingüísticos que se pretenden poner en marcha. Posteriormente se hará una evaluación de lo realizado. Este proyecto requiere unas dotaciones económicas y también la modificación del plan estratégico de subvenciones para convenirlo con agentes sociales. De todas estas cuestiones se ha informado a todos los grupos y agradece la atención recibida por parte de los mismos e invita al acto del comienzo del proyecto el próximo día del euskera, el tres de diciembre en Las Arenas.

Oier Iturralde manifiesta que EH Bildu apoya esta propuesta como todas las actuaciones a favor del euskera y más si se hace en consenso con los agentes sociales como Bizarra Lepoan, también felicita al equipo de gobierno por su actuación y también se alegra del acuerdo alcanzado entre el Gobierno Vasco y Topagune. Estima que aún quedan todavía caminos para avanzar y manifiesta el apoyo de EH Bildu al euskera.

